

Sutondotik Plazara

LEHIAKETA

1. Lehiaketaren helburuak

Sutondotik Plazara Lehiaketa Bizilur-Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako erakundeak eta Etxalde-Nekazaritza Iraunkorrek antolatu dute [Donostia/San Sebastián Europako Kultur Hiriburua 2016](#)-ren, [Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren](#) eta [Hands on the Land for Food Sovereignty](#)-ren (Eskuak Lurrean Elikadura-burujabetzarako) laguntzarekin.

BIDE BERRIAK lehiaketaren helburua da **Elikadura-burujabetzaren** inguruko informazioa, gogoeta eta eztabaida **gure gizartean** sustatzea, eta bere eraikuntza hiri eta herrien arteko dagoen loturatik indartuz. Horretarako, adierazpen artistikoaren eta komunikazio-formatu berrien sustapenaren bidez, kontzientzia kritikoa sortzeko tresnak diren aldetik. Eta horrela ere, baserritarrek gure elikaduran eta bizitzaren iraunkortasunean daukan garrantzia ikasgaraztea.

2. Gaia

Elikadura-burujabetza honela definitu zuen Via Campesinak Nyeleniko (Mali) Adierazpenean (2007): “Elikadura-burujabetza herriek elikagai nutritiboak eta kulturalki egokiak, eskuragarriak, eredu iraunkorrean eta ekologikoki ekoiztuak diren elikagaiak izateko duten eskubidea da; **herriak berak elikapen zein ekoizpen-eredua erabakitze**ko eskubidea. **Elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituztenak** elikadura-sistemen eta politiken **erdigunean** kokatzen ditu, merkatuen eta enpresen eskakizunen ginetik, alegia.

Etorkizuneko belaunaldien interesak defenditzen ditu, eta haiek hartzen ditu kontuan. Merkatu libre eta korporatiboa eta egungo elikadura-erregimenaren aurrean eusteko eta haiek hankaz gora jartzeko estrategia eskaintzen digu, eta elikadura-sistemak, nekazaritza, artzaintza eta arrantza-sistemak bideratzeko ere bai, tokiko ekoizleek eurek kudea ditzaten. Elikadura-burujabetzak **tokiko ekonomiak** eta **tokiko eta nazioko merkatuak** lehenesten ditu, eta boterea ematen die **nekazaritzari eta familia-nekazaritzari**, artisau erako arrantzari eta artzaintza tradizionalari; eta elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa **ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren jasagarritasunaren** ardatz bihurtzen du.

Elikadura-burujabetzak merkataritza gardena, herri guztiei diru-sarrera duinak bermatuko dizkien merkataritza eta kontsumitzaileek euren elikadura eta nutrizioa kontrolatzeko duten eskubidea bultzatzen ditu. Gure lurra, gure lurraldeak, gure ura, gure haziak, gure abereak eta biodibertsitatea **erabiltzeko eta kudeatzeko eskubideak** elikagaiak ekoizten ditugunon eskura egongo direla bermatzen du. Elikadura-burujabetzak **harreman sozial berriak** eragiten ditu, **zapalkuntzarik eta desberdintasunik gabeko harremanak**: emakumeen eta gizonen artean, herrien artean, arraza-taldeen artean, gizarte-klaseen artean eta belaunaldien artean.

Horren ildotik, lehentasuna izango dute Elikadura-burujabetza hainbat eremutan sustatzeko abian jartzen ari diren **proposamen** eta **aukerei** buruz edo dauden **eragozpen** eta **erronkei** buruz diharduten lanek, esaterako: nola eragiten dion egungo elikadura-sistemak (industrial eta intentsiboak) bizi dugun klima eta energia-krisiari, lurrak eta elikadurak ekoizteko beharrezkoak diren bestelako ondasunen (ura, haziak, etab.) metaketaren ondorioz laborantzarako lur gabezia, elikagaien prezioen espekulazioa, nola zaindu biodibertsitatea, agroekologia, elikagaien gure osasunean duten eragina, kontsumitzaile garen aldetik gure janariarekin dugun harremana, elikagaien kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko harremana, Euskal Herriko eta beste gizarte batzuetako ekoizleen egoera, emakumeek elikagaien ekoizle diren aldetik duten garrantzia, nola moldatu elikagaiak kontsumitzeko modua, elikagaien merkatu handien aurreko aukerak, tokiko eta sasoiko produktuak zergatik eta nola erosi, nola duindu gure baserrietako bizimodua, etab.

Elikadura-burujabetzak biziaren jasangarritasuna jartzen du muin muinean. Horretarako, pertsonen artean ezarrita dauden harremanak berraztertu eta aldatu egin behar dira, halako eraz non guztiak izan daitezten zapalkuntza, ezarpen edo desberdintasunik gabeak; hortaz, lehentasuna izango dute genero-desberdintasuna ikusarazten eta **ikuspegi feminista** duten lanek.

Elikadura-burujabetzak elikadura funtsezko giza eskubideen erdigunean kokatu nahi du. Horretarako, guztientzako kalitatezko elikadura bermatzen duten elika sistemen garapena beharrezkoa da, bereziki ahulezian edo gizarte-bazterkeriako egoera batean dauden sektoreen elikadura. Duin eta kalitatezko elikadurarako eskubidea eta baserriar eredu batean bizitzeko eskubidea elikadura-burujabetzaren oinarriak dira. Horregatik, bi eskubide horiek sustatzen dituzten lanak nabarmenduak izango dira Hands on the Land for Food Sovereignty (Eskuak Lurrean Elikadura-burujabetzarako) Sarearen laguntzarekin, “Denok baserriarren eskubideen alde” sariaren bitartez.

3. Kategoriak

Lan bakoitza lau kategoriatako bakar batean soilik aurkeztu ahal izango da:

3.1. Ilustrazioak

Ilustrazio digitalak edo eskuz egindako ilustrazioak aurkeztu ahal izango dira, koloretan nahiz zuri eta beltzean, guztiak .jpg formatuan, eta 2MB baino gutxiago, izena emateko formularioaren bidez.

Eskuz egindako ilustrazioen kasuan, parte-hartzaileak nahi badu, paperean aurkeztu ahal izango du jatorrizko lana. Lan horrek irabazten ez badu, antolatzaileei eskatu eta itzuli egingo zaio nahi izanez gero.

Lanak idatzizko atalen bat badarama, euskaraz eta/edo gaztelaniaz idatzita egon behar du.

3.2. Argazkiak

Jatorrizko argazkiak, ukituren bat dutenak, argazki-collagea, etab. aurkeztu ahal izango dira, koloretan nahiz zuri eta beltzean, .jpg formatuan, 2MB baino gutxiago, izena emateko formularioaren bidez. Parte-hartzaileak nahi badu, argazkia inprimaturik aurkeztu ahal izango du. Lan horrek irabazten ez badu, antolatzaileei eskatu eta itzuli egingo zaio nahi izanez gero.

3.3. Ikus-entzunezkoak / Film laburrak

Edozein formatutan grabaturiko ikus-entzunezko edozein lan aurkeztu ahal izango da; hala nola, flashmob, poema errezipatuak, bideoklipak, argazki muntaketak, argazki-nobelak, dantza, animazio-proiektuak, elkarrizketak, fikzioak, performanzeak, etab. Lanen gehieneko iraupena, kasu guztietan, 5 minutukoa izango da.

Gaztelania eta euskara ez diren beste hizkuntza bateko elkarrizketak badituzte, lanetan hizkuntza horietako bateko azpi-tituluak txertatu beharko dira.

3.4. Narratiba – kontaketak, poemak, artikulak

Edozein narrazio-estilotan idatzitako lanak aurkeztu ahal izango dira: elkarrizketak, artikulak, fikzioko kontakizunak, ipuinak, poemak, etab. Lanek ez dute 2.000 hitz baino gehiago izan behar, eta euskaraz eta/edo gaztelaniaz idatzi behar dira.

4. Lehiaketaren oinarri orokorrak

Lehiaketa irekia da bertan parte hartu nahi duten emakume, gizon eta kolektibo guztientzat.

Ez dago parte-hartzaile bakoitzerako ez kategoria bakoitzerako lan kopuru mugarik; hau da, pertsona berak hainbat lan aurkeztu ahal izango ditu hainbat kategoriatan.

Ez dira onartuko lan iraingarriak, sexistak, lizunak, xenofoboak edo arrazistak, ez eta ohorerako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea edo pertsonen irudia zaintzeko eskubidea urratzen duen edukirik ere.

Lehiaketari ez datzekion gairen bat duten lanak lehiaketatik kanpo geratuko dira. Lanak honako **gai** hauetako bati edo batzuei lotuko zaizkie:

- a) **Elikadura-burujabetza eta Klima-aldaketaren aurkako Borroka** – eredu agroindustrialak klima-aldaketa globalean duen eraginari buruz edo nekazaritzak planeta hozten laguntzeko egin dezakeen ekarpenari buruzko lanak.
- b) **Agroekologia edo ekoizpen-eredu jasangarriak** – ondasun erkideetarako (lurra, ura, haziak eta zainketa) irisgarritasunari eta industria-ekoizpeneko ereduen aurrean nekazarien jakintza berreskuratzeari buruzko lanak.
- c) **Elikadura-burujabetza eta kontsumoa** – gaur egun eskura dugun elikagaien kontsumoarekin eta/edo ekoizleei laguntzea eta kontsumo arduratsu eta jasangarria ardatz duten kontsumo-aukerekina loturiko lanak.
- d) **Nekazarien borroka eta herri-jakintza** – Nekazarien mugimendu sozialak - Euskal Herrian nahiz beste lekuren batean-, Via Campesinaren zeregina bereziki, elikadura-burujabetza lortzearen inguruko bestelako borroka eta nekazarien jakintza tradizionala berreskuratzea ardatz dituzten lanak.
- e) **Feminismoa eta Elikadura-burujabetza**- nekazari eremuan emakumeen egoera eta elikadura-burujabetza eraikitzen duten zeregina ikusgarri bihurtzeari buruz, edo nekazaritza-eremuan eta nekazari-komunitateen eruedetan genero-berdintasunaren aldeko borroka buruzko lanak.
- f) **Baserritarren Eskubideak eta Elikadura duinerako eskubidea**- baserritar eredu batean bizitza eraikitzeke eskubidea eta jende eta komunitate guztiek elikadura egokia izateko eskubideen beharra, sustapena eta defentsari buruzko lanak.

Lan bat aurkezte hutsak parte-hartzaileak lehiaketaren oinarriak onartzen dituela adierazten du, eta baimena ematen zaio antolatzaileei lan horiek edo lan horien zatiren bat (aldatu gabe, eta egilea aipatuta beti) komunikaziorako edozein euskarritan zabaltzeko. Copyleft 3.0 lizentzia onartuko da aurkezten diren lan guztietarako.

5.Nola parte hartu

Lehiaketan parte hartzeko, www.bideberriak.eus/lehiaketa webgunearen bidez sartu behar da aukeraturiko kategorian, eta bertan, aurkeztu nahi den lan bakoitzeko izena emateko orri bana bete behar da.

Ilustrazioak eta **Argazkiak** kategorien kasuan lanak izena emateko formularioaren bidez bidaliko dira.

Ikus-entzunezkoak kategoriaren kasuan, lanak Vimeo edo YouTubera igo behar dira eta esteka (URL) bidali behar da izena emateko formularioaren bidez. Bideoaren izenean, lanaren izenburua agertu behar da.

Narratiba kategoriaren kasuan, testua izena emateko formularioaren bidez bidaliko da zuzenean.

Lanak jasotzeko epea 2016eko apirilaren 25tik uztailaren 15era bitartekoa izango da.

Epaimahaiaren epaia BIDE BERRIAK/lehiaketa webgunearen bidez jakinaraziko da 2016eko irailaren 2an.

6.Sariak

BIDE BERRIAK lehiaketako sari guztiak, publikoak emandakoak izan ezik, epaimahai batek emango ditu, eta epaimahaikide izango dira komunikazio eta kultura alorreko zenbait profesional, ikuspegi feminista duten komunikazioko hainbat aditu, lehiaketaren antolatzaile eta Euskal Herriko nekazarien mugimenduko ordezkariak. Epaimahaia osatzeko sexu bakoitzaren ordezkaritza ez da inoiz % 40 baino txikiagoa izango.

6.1. Ilustrazioak ataleko saria

Ilustraziorik onenari **100 €*** -ko saria emango zaio; eta horrekin batera, 2016ko 26tik 30era, Cluj, Napoca, Errumanian egingo den **Elikadura-burujabetzarako Bigarren Europar Forum, [NYELLENI EUROPA](#)**n, parte hartzeko aukera izango du irabazleak (gastuak ordaindu behar izan gabe)**.

Ilustrazio finalistak ere argitaratu ahal izango dira argitalpen horretan edo beste batzuetan, lehiakidearen eta antolatzaileen interesekoa dela erabakitzen bada.

6.2. Argazkiak ataleko saria

Argazkirik onenari **100 €*** -ko saria emango zaio; eta horrekin batera, 2016ko 26tik 30era, Cluj, Napoca, Errumanian egingo den **Elikadura-burujabetzarako Bigarren Europar Forum, [NYELLENI EUROPA](#)**n, parte hartzeko aukera izango du irabazleak (gastuak ordaindu behar izan gabe)**.

Argazki finalistak ere argitaratu ahal izango dira argitalpen horretan edo beste batzuetan, lehiakidearen eta antolatzaileen interesekoa dela erabakitzen bada.

6.3. Ikus-entzunezkoak ataleko saria

Ikus-entzunezko lanarik onenari **100 €*** -ko saria emango zaio; eta horrekin batera, 2016ko 26tik 30era, Cluj, Napoca, Errumanian egingo den **Elikadura-burujabetzarako Bigarren Europar Forum, [NYELLENI EUROPA](#)**n, parte hartzeko aukera izango du irabazleak (gastuak ordaindu behar izan gabe)**.

6.4. Narratiba ataleko saria

Idatzizko lanik onenari **100 €*** -ko saria emango zaio; eta horrekin batera, 2016ko 26tik 30era, Cluj, Napoca, Errumanian egingo den **Elikadura-burujabetzarako Bigarren**

Europar Forum, [NYELLENI EUROPA](#)n, parte hartzeko aukera izango du irabazleak (gastuak ordaindu behar izan gabe)**.

6.5. Begirada Feminista saria

Begirada Feminista saria atal guztietatik aukeratua izango da eta **100 €*** -ko saria emango zaio; eta horrekin batera, 2016ko 26tik 30erra, Cluj, Napoca, Errumanian egingo den **Elikadura-burujabetzarako Bigarren Europar Forum, [NYELLENI EUROPA](#)n**, parte hartzeko aukera izango du irabazleak (gastuak ordaindu behar izan gabe)**.

6.6. “Denok baserritarren eskubideen alde” Saria

Sari honekin atal guztietatik aukeratua izango da, eta hurrengo mezuak hoberen nabarmentzen duen lanari emango zaio: elikadura eta baserritarren eskubideak sustatu eta defendatzeko lanak duen garrantzia, eskubide horiek defendatzen duten pertsonen garrantzia edo eta adibide bezala hartu ahal direnak, elikadura duina eta kalitatezkoa izateko eskubidea pertsona guztiak bermatzeko dugun ardura, eta, gure ongi izatea eta osasuna bermatzeko ekoizpen baserritar eta artisaua bultzapena.

“Denok baserritarren eskubideen alde” ataleko onenari **100 €*** -ko saria emango zaio; eta horrekin batera, 2016ko 26tik 30era, Cluj, Napoca, Errumanian egingo den **Elikadura-burujabetzarako Bigarren Europar Forum, [NYELLENI EUROPA](#)n**, parte hartzeko aukera izango du irabazleak (gastuak ordaindu behar izan gabe)**.

6.7. Publikoaren saria – Donostia 2016 Saria

Publikoaren saria jasoko dute www.bideberriak.eus/lehiaketa webgunean, kategoria bakoitzean (ilustrazioak, argazkiak, ikus-entzunezkoak eta narratiba) boto gehien lortu duten lanek. Internauta bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du kategoria bakoitzean.

Berdinketa gertatzen bada, epaimahaiak aukeratuko du lan irabazlea. Epaimahaiaren saria eta publikoaren saria lan berberak irabazten baditu, publikoaren saria bigarren finalistari emango zaio.

Irabazten duen lanari **400 €*** -ko saria emango zaio dirutan.


*Azaldutako sariak garbiak dira, **PFEZ rako murrizketa kontuan izanda.**

**Informazio gehiago hemen: <http://www.nyelenieurope.net/en/> .Irabazleak beste irabazleekin eta lehiaketaren antolatzaileekin bidaiatuko du. Bidaian parte hartzeko, beharrezko baldintza izango da espainiar estatuan bizi izatea.

Antolakuntzak beretzat gordetzen du sariak esleitu gabe uzteko eskubidea.

Saria irabazi izana zuzenean jakinaraziko zaie irabazleei irailaren 15ean, eta antolatzaileen webguneetan argitaratuko dira.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

